BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BARDINTASUNERAKO BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN I. PLANA

2017-2020

MURGIBE. Consultoría Igualad

DOKUMENTUAREN EGITURA

		PÁG.
1.	Sarrerea	..2
2.	Esparru juridikoa	..3
3.	Esparru kontzeptuala	..8
4.	Metodologia	12
5.	Diagnostikoaren oinarrizko datuak	15
6.	Bardintasun Plana 2017/2020 Egutegia	23
7.	Planaren kudeaketea, jarraipena eta ebaluazinoa	40

1. SARREREA

Batzar Nagusiak bizkaitarren ordezkaritzarako eta parte-hartzerako erakunde gorena dira: Bizkaiko Legebatzarra dira.

Bizkaia garatzen lagunduko daben ekimenak sustatzea da euren helburua, eta foru aginduak egiteko eskumena daukie Lurralde Historikoen Legeak eskumena emoten deutsezan gaietan, besteak beste: obra publikoak, gizarte-laguntzea, zerga-politikea, nekazaritza, museoak, eta abar.

Batzar Nagusien egoitza ofiziala Gernikako Batzarretxean dago, eta hantxe egiten dira osoko batzarrak. Beste alde batetik, administrazino-egoitzea Bilbon dago, eta egoitzak dira, era berean, Abellanedako Batzarretxea eta Gerediagako (Abadiño) San Salbador eta San Klementeren Ermitea.

Agintaldi honetan, helburu eta jarduera-ildo nagusietako bat da erakundea herritarrengana hurrerazotea, eta, horrenbestez, Legebatzarreko zein haren egoitzetako ateak zabaldu dira, Bizkaiko interesgune kultural eta turistiko bihurtu daitezan

Beste alde batetik, zezeilaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerakoak, herri-aginteen jardunbidean nagusi izan behar daben printzipioak ezartzen ditu, emakumeen eta gizonen bardintasunari begirakoak, bai eta hainbat neurri arautu be, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-bardintasuna sustatu eta bermatzeko, bizitzaren arlo guztietan, eta bereziki emakumeeen autonomia eta euren posizino soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko, talde diskriminadua dan aldetik. Ildo horretatik, Bizkaiko Batzar Nagusietan beharrezkotzat ikusi da Bardintasun Plana egitea, esparru kontzeptuala eta deskribatzailea eskaini deien emakumeen eta gizonen parte-hartzea sustatzeari begirako proposamenei eta bardintasuna indartzeari begirako neurriei, erakundearen gobernantzearen baitan.

2. ESPARRU JURIDIKOA

Azken urteotan, askotariko lege eta arauak onartu dira –nazinoartean, Europan, Estaduan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeen eta gizonen bardintasunerako eskubidea esplizituki aldarrikatzeko. Lege eta arau horreek, administrazino publikoen esparrua ez ezik, enpresa eta erakunde pribaduena be hartzen dabe.

Horrenbestez, *Emakumeen eta Gizonen BARDINTASUNERAKO BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN I. Plana* esparru instituzional eta juridiko zabal baten kokatzen da.

NAZINOARTEKOA

- Nazino Batuen Gutuna (San Frantzisko, 1945eko bagilaren 26a).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibersala –Nazino Batuen Erakundeak (NBE) onartu eban, 1948ko abenduaren 10ean.
- Emakumeen Kontrako Diskriminazino Mueta Guztiak Desagerrarazoteko Konbentzinoa (Convention on the Elimination of all Forms of Discrimination Against Women: CEDAW). NBEk onartu eban, 1979ko abenduaren 18an, New Yorken, eta Espainiako Estaduak berretsi, 1983ko abenduaren 16an.
- NBEren 48/104 Ebazpena, Emakumearen Kontrako Indarkeria Desagerrarazoteari buruzkoa, NBEren Batzar Nagusiak onartua, Vienan, 1993ko abenduaren 20an.
- Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentziak (NBE).
- Emakumeei buruzko Munduko Konferentziak, zeinetan mundu mailako jardunbide-proposamenak jasoten baitira, nazinoarteko beste hainbat tresnaren oinarrian agertzen diranak.
- 2010eko garagarrilean, NBEren Batzar Nagusiak NBE-Emakumeak atala sortu eban, hau da, Genero Bardintasunaren eta Emakumeen Ahalduntzearen aldeko NBEren atal berezia.

EUROPAKOA

- Erromako Ituna (1957ko martiaren 25a), zeinaren bidez Europako Ekonomia Erkidegoa eratu zan. Testuaren 14. artikuluak bardintasunaren eta sexuagaitiko bereizkeria ezaren printzipioa aitatzen dau. Beste alde batetik, 114. artikuluak (lehengo 119. artikuluak) emakumeen eta gizonen tratu-bardintasunaren printzipioa jasoten dau, bai eta lan beragaitik edo balio bereko lana egiteagaitik lansari bera hartzeko eskubidea be.

- Maastricheko Ituna (1992ko zezeilaren 9a), zeinaren bidez Europar Batasuna (EB) eratu zan. Testuaren 6. artikuluak dinoanez, bardintasunaren printzipioa ez da eragozpen izango estadu kideek ekintza positiboko neurriak hartu dagiezan.

- Europako Kontseiluko Ministroen III. Konferentzia, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunari buruzkoa (Erroma, 1993ko urria).

- Amsterdameko Ituna (EBko hamabost estadu kideetako atzerriko gaietarako ministroek sinatua, 1997ko urriaren 2an). Itun honen bidez, Maastricheko Itunaren 6. artikulua (lehengo F artikulua) aldatu zan, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetetako printzipioa bermatzeko. Beste alde batetik, beste hainbat xedapen jaso zituan emakumeen eta gizonen bardintasunari buruz.

- Europarentzat Konstituzino bat eratzen dauan Ituna, Europako Kontseiluak onartua, Bruselan, 2004ko bagilaren 18an. Bardintasunari jagokonez, I. Zatiaren 1-2 artikuluak EBren baliotzat joten dau emakumeen eta gizonen bardintasuna, eta 1-3 artikuluak, barriz, EBk emakumeen eta gizonen bardintasuna sustatuko dauala ezartzen dau.

- Europar Batasunaren hainbat zuzentarau, besteak beste, 2006ko garagarrilaren 5eko 06/54 Zuzentaraua, emakumeen eta gizonen arteko tratu-bardintasunaren eta aukera-bardintasunaren printzipioak laneko gaietan apliketeari buruzkoa (aurreko zuzentarauek inoena biltzen dau).

- Emakumeen eta Gizonen Bardintasunaren Aldeko Lan Plangintza 2016-2020, Europar Komunidadeen Batzordearena. Dokumentu horretan, Batzordeak EBren lehentasunezko

jardun-esparruak markatzen ditu, aldi horretarako; era berean, lehentasunezko helburuak aitatzen ditu, bai eta horreek lortzeko funtsezko ekinbideak be.

- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2010eko bagilaren 17koa, atzeraldi ekonomikoak eta krisialdi finantzarioak daukien genero-dimensinoari buruzkoa.

- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2010eko irailaren 7koa, zahartzen dabilen gizarte honetan emakumeak daukan rolari buruzkoa.

- Istanbuleko Hitzarmena, 2014koa, eta 2012/29/EB Zuzentaraua, delituen biktimak babesteko, laguntzeko eta euren eskubideak bermatzeko gitxieneko arauak ezartzen dituana.

ESTADUKOA

- 1978ko Espainiako Konstituzinoa. Testuaren 14. artikuluak dinoanez, “Espainiarrak legearen aurrean bardinak dira eta ezin dau iraun jaiotza, arraza, sexu, erlijino, adierazpen edo gainerako edozein baldintza edo inguruabar personal edo sozialagaitik dagoan bereizkeriarik”. Beste alde batetik, 9.2. artikuluak dinoanez, “Herri-aginteei jagoke gizabanakoaren eta taldeen bardintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko bideak sustatzea; bardintasun osoa eragozten edo zailtzen daben oztopoak baztertzea; eta herritar guztien parte-hartzea politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan erraztea”.

- 1/1995 Errege Dekretu Legegilea, martiaren 24koa, Beharginen Estatutua onartzen dauana.

- 39/1999 Legea, zemendiaren 5ekoa, Beharginaren familia- eta lan-bizitza buztartzea sustatzekoa.

- 1251/2001 Errege Dekretua, 39/1999 Legearen zati bat garatzen dauana.

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa. Lege organiko horrek erantzun orokorra emon gura deutso emakumeen aurkako indarkeriari, eta oinarria eskaini, era berean, gaia zehatzago garatuko dauan araudiari.

- Emakumeen eta Gizonen Arteko Aukera Bardintasunerako Estadu Planak: 1988an onartu zan Estaduko lehen plana, eta, gaur egun, 2016 – 2019 aldirako Plan Estrategikoa dago indarrean.

- 3/2007 Lege Organikoa, martiaren 28koa, emakumeen eta gizonen bardintasun efektiboari buruzkoa.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA (EAE)

- Autonomia Estatutuaren 9.2. artikuluak aitamen berezia egiten deutso bardintasunari.

- 1988an, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea eratu zan.

- 1991n, EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana onartu zan, eta haren oinarrian garatu dira ondorengo planak be (gaur egun, EAEko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako VI. Plana).

- 2005eko zezeilaren 18an, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako 4/2005 Legea onartu eban.

- 2000tik aurrera, EAEko hiru foru aldundiek daukiez bardintasun-planak, eta Bizkaikoak, zehazki, martxan dauka jada Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako V. Foru Plana 2016-2019.

- 1990etik aurrera, martxan ipinten hasi ziran bardintasunerako udal planak, eta gaur egun plan horreek euskal biztanleen %80 hartzen dabe.

- 2011n, Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistearen Euskal Behatokia eratu zan.

- 2015ean, NBEk EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea saritu eban (Nazino Batuen Zerbitzu Publikoen Lehen Saria emon eutsan, Genero Ikuspegiaren Sustapenaren modalidadean).

- 2016an, Eusko jaurlaritzak Administrazino Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako l. Plana onartu eban.

Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako 4/2005 Legeak argi definiduten dau ze funtzino jagokon administrazino-maila bakotxari bardintasunaren gaiari jagokonez; herri-aginte guztiak behartzen ditu bardintasunerako baldintzak sustatu eta eragozpenak gainditzeko neurriak hartu dagiezan, bardintasuna efektiboa eta erreala izan daiten, eta behartzen ditu, era berean, bardintasunaren alde jokatu dagien euren politika eta ekintza guztietan.

Erakunde pribaduei jagokenez, emakumeen eta gizonen bardintasuna sustatzeko planak eta programak egiteko beharra aitatzen da, bai eta neurri zehatz eta efektiboak hartzekoa be, bardintasuna benetakoa izan daiten bai barne-funtzionamenduan, bai kanpora begirako lanean.

Gizarte- eta lan-arloan emakumeen eta gizonen bardintasunaren aldeko ekimenak be sustatzen dira, eta, hala, euren antolakuntzan bardintasun-politikak garatzen dituen erakundeei aitorpen hau emoten jake: “Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Lankidetza Erakundea”.

3. ESPARRU KONTZEPTUALA

Bardintasun-plan honen oinarrian, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako 4/2005 Legeak bere Atariko Tituluko 3. artikuluan ezartzen dituen printzipio orokorrak dagoz; hain zuzen be, honeek:

1. Tratu bera

Debekatuta dago personen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein dala be horretarako erabilitako modua.

Lege honen ondorioetarako:

a) Zuzeneko bereizkeria dago persona bat sexuagaitik edo sexuagaz zuzenean lotutako inguruabarrakaitik –haurdun egonda edo ama izanda, esate baterako– beste persona bat baino modu txarragoan tratetan danean. Delitu lez euki ahal dauen tipifikazinoa ahaztu barik, laneko sexu-jazarpena sexuagaitiko zuzeneko bereizkeriatzat joten da.

b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, erispide edo praktika batek, itxuraz neutroa izanda be, sexu bereko multzo handiago bati kalteak eragiten deutsazanean, salbu eta egintza juridiko, erispide edo praktika hori egokia eta beharrezkoa danean, eta sexuagaz lotuta ez dagozan erispide objektiboak erabilita justifiketako modukoa danean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dabe ezelango diru-laguntza edo laguntzarik emon sexuagaitiko bereizkeria eragiten dauan edozelako jardueratarako. Sexuagaitiko bereizkeria dala-ta administrazino-zehapena edo zigor penala jaso daben persona fisiko edo juridikoak be egoera berean geratuko dira, dana dalako zehapen edo zigorrak dirauen denporan.

Euskal herri-aginteek hauxe be bermatu behar dabe: bereizkeria-egoerak eragin ahal dituan beste inguruabar batzuk be tartean dagozalako bereizkeria anizkoitza jasaten daben emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituela eueren oinarrizko eskubideak. Inguruabarrok honeek izan daitekez: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijinoa, politikeari edo bestelako gaiei buruzko eretxiak, gitxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joerea, edo beste edozein baldintza edo inguruabar personal edo sozial.

2. Aukera-bardintasuna

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar ditue emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, bai eta arauetan aitortu lekikiezan gainerako oinarrizko eskubideak be, aukera bardinakaz baliatzen dituela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontroletea barne. Lege honen ondorioetarako, aukera-bardintasunaz ari garala, zera esan gura da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horreek guztiak gauzatzeko eta behar dan moduan kontroletako baldintzez be ari garala.

Era berean, euskal herri-aginteek bermatu egin beharko dabe ez dala oztoporik egongo lege honetan aitatzen diran eskubideak gauzatzeko eta arautzen diran baliabideak eskuratzeko; izan be, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horreek bertan behera ixtea zehazten da (Irisgarritasuna sustatzen dau lege horrek).

3. Aniztasuna eta ezbardintasuna errespetetea

Herri-aginteek beharrezko neurri guztiak abiarazo behar ditue, sexuen bardintasunerako prozesuan errespetau daitezan bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrizanei jagokenez dagozan ezbardintasunak eta aniztasuna, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen barruan dagozan ezbardintasunak eta aniztasuna be.

4. Genero-ikuspegiaren integrazinoa

Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dabe euren politika eta ekintza guztietan, horreetan guztietan ezbardintasunak desagerrarazoteko eta emakumeen eta gizonen bardintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarri dagien.

Lege honen ondorioetarako, hauxe da genero-ikuspegiaren integrazinoa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezbardinak modu sistematikoan konsideretea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horreen plangintza-, egikaritze- eta ebaluazino-fase guztietan, ezbardintasunak desagerrarazoteko eta bardintasuna sustatzeko xedea daukien helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

5. Ekintza positiboa

Emakumeen eta gizonen benetako bardintasun eraginkorra lortzea sustatzeko, herri-aginteek denporan ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazo behar ditue, bizitzaren eremu guztietan sexuagaitik gertatzen diran egitatezko ezbardintasunak desagerrarazoteko edo murrizteko.

6. Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerrarazotea

Euskal aginte publikoek, zalantza barik, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerrarazotea sustatu behar dabe, emakumeen eta gizonen arteko desbardintasunaren oinarri diralako eta horreen arabera emakumeei etxeko eremuaren ardurea eta gizonei eremu publikoaren ardurea izendatzen jakezalako, eta hori, gainera, balorazino eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezbardina eginez.

7. Ordezkaritza orekatua

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar ditue emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko erabagiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondorioetarako, persona askoko administrazino-organoetan, ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek %40ko ordezkaritzea –gitxienez– daukienean.

8. Lankidetza eta koordinazinoa

Euskal herri-aginteek, emakumeen eta gizonen bardintasunari jagokonez, alkarregaz lankidetzan aritzeko eta euren jarduketak koordinetako betebeharra daukie, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalagaz bat datozenak egin ahal izan daitezan.

Era berean, alkarlana eta lankidetza sustatu behar dabe Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko beste instituzino eta erakunde batzuekaz, euskal herritar guztiei bermatu ahal izateko gizonen eta emakumeen bardintasuna.

Beste alde batetik, bi estrategia planteau dira plana garatzeko: genero-mainstreaminga edo genero-zeharkakotasuna eta ekintza positiboa. Genero-zeharkakotasuna ezinbesteko estrategiatzat joten da emakumeen eta gizonen bardintasuna kudeatzeko, eta holan dago jasota definizino honetan:

> *"Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezbardinak modu sistematikoan konsideretean datza, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horreen plangintza-, egikaritze- eta ebaluazino-fase guztietan, desbardintasunak desagerrarazoteko eta bardintasuna sustatzeko xedea daukien helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea."*

Estrategia hori da, beraz, bardintasunaren alorreko egikaritze ororen funtsezko ardatza, eta, horrenbestez, planaren diseinuan gehitu dira berau bideratzeko behar diran mekanismoak.

Horrez gainera, ekintza positiboa be sartu da, tresna eraginkorra da eta. Ekintza positiboa Europar Batasunaren eta EAEren programetan jasota dago, eta aukera-bardintasunerako politika "tradizionalen" barruan kokatzen da, sexuagaitik gertatzen diran desbardintasunak eta horrek dakarzan arazoak konpontzeko. Europar Batasuneko Aukera Bardintasunerako Aholku Batzordearen arabera, ekintza positiboa holan definiduten da:

> *"Ekintza-programa baten formea daukan estrategia, gertaeretan aukera-bardintasuna ezartzeko xedea daukana, horretarako, praktika sozialetatik eta sistema sozialetik sortzen diran diskriminazinoak indargabetzeko edo zuzentzeko aukerea emongo daben aldi baterako neurriak erabilita".*

Bi estrategiak elementu alternatibo eta osagarriak dira bardintasun-politikak gauzatzeko. Zeharkakotasunak aldaketarako ahalmen handia dauka, eta, egiturazko alderdietan eragiten dauanez, denporea behar da ezartzeko. Beste alde batetik, ekintza positiboak askoz arinago eragiten dau desbardintasunak dagozan egoera zehatzetan.

4. METODOLOGIA

Hurrengo lerroetan, labur azalduko da ze metodologia jarraitu dan proiektu hau egiteko, zeinaren emaitza hiru testu izan baitira: Bardintasunaren Diagnostikoa, Bardintasunerako Plana 2017-2020 eta Plan Operatiboa 2017rako.

Lan-estrategia lez, hiru dokumentu egitea erabagi da, horreen zabalkundea eta eraginkortasuna bermatzeko. Ildo horretan, jarraian azalduko da Diagnostikoan jaso diran ondorioen laburpena, eta aurkeztuko dira, era berean, Bardintasun Planaren ardatz estrategikoak, ekinbideak eta jarduerak, hori da-ta dokumentu honen helburua.

PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Diagnostikoa eta Bardintasunerako Plana egiteko, lantalde berezi bat sortu da, Bardintasunerako Lantaldea lez izentau dana; bera izan da proiektuaren motorra eta berak bideratu dau, era berean, lan-plangintzarako beharrezkoak izan diran ekintza guztien koordinazinoa.

Bardintasunerako Lantaldea (Diagnostikoan jaso dira xehetasun guztiak) 4 emakumek eta 2 gizonek osatu dabe azkenik, erispide honeen arabera:

Horrenbestez, beren-beregi sortutako lantaldea da, eta berau osatzen daben personen interesak bermatuko dau taldearen jarraipena. Hala, behin Diagnostikoa eta Bardintasunerako Plana egiteko lanak amaituta, aukerakotzat ikusten da taldea zabaltzea, beti be erispide nagusiak eraginkortasuna eta arintasuna izanik, lantaldea dan aldetik.

TEKNIKAK ETA TRESNAK

Lan-prozesuan zehar, metodo kuantitatiboetan eta kualitatiboetan oinarritutako azterketa-teknikak baliatu dira; besteak beste

1. Erakundearen dokumentazinoa aztertu da (bigarren mailako iturriak).

2. Beharginen ezaugarriei buruzko datuak kuantitatiboki aztertu dira: adina, lanpostua, kategoria, lan-baldintzak, segurtasuna eta osasuna, beharginen kudeaketea…; sexua aldagaia zeharkakoa izan da datu guztiakazko. Guztira, 24 behargini buruzko datuak aztertu dira: lanpostu egonkorra daukien 15 beharginenak (6 emakume eta 9 gizon) eta lehendakaritzaren eta batzarkide-taldeen laguntzaileak diran 9 beharginenak (6 emakume eta 3 gizon).

3. Alkarrizketa luze-zabalak egin jakez zenbait informatzaile gakori: 6 alkarrizketa egin jakez erakundeko 8 informatzaile gakori (5 emakume eta 3 gizon).

4. Eretxiak eta balorazinoak aztertu eta prozesau dira; hainbat bide baliatu dira informazino hori lortzeko: bilerak, lan-saioak, topaketak, prestakuntza-saioak, galdetegiak eta postontzia (posta elektronikoa: bardintasunaBBNN@murgibe.com), beren-beregi sortutakoa prozesuan erabilteko.

5. Prestakuntza-pilulak emon dira, gai honeei buruz:

   - *Bardintasunaren alorreko abezea: generoaren ikuspuntutik, zer dakar Bizkaiko Batzar Nagusietan lan egiteak?*
   - *Lana eta bizitza personala buztartzea, eta denporearen erabilera barriak. Jardunbide egokiak.*
   - *Komunikazinoa eta generoa.*

   Prestakuntza-saioetan, 22 emakumek eta 13 gizonek parte hartu dabe (behargin finkoak, batzarkideak eta batzarkide-taldeen laguntzaileak), eta guztira 13 ordu egon dira prestakuntza espezifikorako.

6. Online beteteko galdetegiak be egin dira, beharginen eta batzarkideen ekarpenak eta eretxiak jasoteko emakumeen eta gizonen arteko balizko tratu-desbardintasunei buruz. Guztira, 10 galdetegi jaso dira: 6 emakumezkoenak eta 4 gizonezkoenak.

7. Sensibilizazino-lansaio bat egin da komunikazino arloko beharginei zuzenduta; zehazki, Bizkaiko Batzar Nagusietako departamentuetako komunikazino arloko beharginei, batzarkide-taldeen komunikazino-laguntzaileei eta Batzar Nagusietako prensa zerbitzuko beharginei. Helburua izan da aztertzea zelan txertatu genero-ikuspegia informazinoaren transmisinoan. Lansaio horretan, 13 beharginek parte hartu eben: 8 emakumek eta 5 gizonek (2 ordu).

8. Bilera-topaketa bat egin da beharginakaz eta batzarkideakaz, diagnostikoaren emaitza esanguratsuenak helarazoteko eta Bardintasun Planari begirako proposamenak egiteko (30 lagunek parte hartu eben; 15 emakumek eta 15 gizonek).

5. DIAGNOSTIKOAREN OINARRIZKO DATUAK

Lehen esandako moduan, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Bizkaiko Batzar Nagusien I. Plana egin aurretik Diagnostikoa egin zan, eta testu hori beste dokumentu baten dago jasota osorik.

Erakundeko beharginen osaketearen inguruan, hona hemen oinarrizko datu eta grafiko batzuk.

Bizkaiko Batzar Nagusietan 15 behargin finko dagoz (6 emakume eta 9 gizon); horreek dira jarduera parlamentarioaren eta batzarkide-taldeen jardunaren euskarriak.



15 behargin finko

Lehendakaritzak lan-kontratupeko zenbait behargin laguntzaile ditu; horreek eta batzarkide-talde bakotxeko idazkaritza-kideek osatzen dabe behin-behineko beharginen taldea. Guztira, behin-behineko 9 behargin dira, 6 emakume eta 3 gizon; behargin finkoen taldeagaz erkatuta, bistan da talde honetan alderantzikatu egiten dala sexuaren araberako ordezkaritzea.



9 behin-behineko behargin

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusietan, alderdi politikoetako 51 batzarkidek jarduten dabe, danak be sufragio unibersal eta libre bidez hautatutakoak azken foru-hauteskundeetan: %41 (21) emakumeak dira, eta %59 (30), gizonak.



51 batzarkide

Hona hemen aitatutako datuak, koadro baten laburtuta:

ERAKUNDEA	BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK		
Jarduerea	Bizkaitarren ordezkaritzarako eta parte-hartzerako organo gorena. Bizkaiko Legebatzarra		
OSAKETEA	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Beharginak, guztira:	12 (%50)	12(%50)	24
• Behargin finkoak	6 (%40	9 (%60)	15
• Behin-behineko beharginak	6 (%67)	3 (%33)	9
Batzarkideak	21 (%41)	30 (%59)	51
Nozko datuak	2016ko bagila – 2017ko urtarrila		
Prozesuaren liderra	Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria		

Diagnostikoak, horrenbestez, informazino hau biltzen dau:

Beharginen banaketea, arloen, kategorien, lanpostuen eta abarren arabera, eta zenbait aldagairen azterketea, hala nola, antzinatasuna, adina, eta abar.

Prozesuan, hainbat bidetatik (alkarrizketak, bilera-topaketak, lansaioak eta prestakuntza-saioak) jasotako informazino kualitatiboa.

Galdetegietatik eta beste informazino-iturri batzuetatik (webgunea, araudia, eta abar) ateratako datuak.

Hona hemen Diagnostikotik ateratako ondorio batzuk, Bardintasun Planak proposatzen dituan lan-ardatzakaz eta horreei jagokezan jarduerakaz loturea daukienak:

- Beharginen %80k 25 urte baino gehiago daroaz lanean Bizkaiko Batzar Nagusietan
- Antzinatasuna elementu gakoa da datozen urteotan prestatu beharreko ordezkapenei begira: emakumezkoen batez besteko adina 50 urtekoa da, eta gizonezkoena, 55 urtekoa –horreetako bik 61 urte baino gehiago daukiez–.
- Behargin barri gitxi hasten da lanean; horreetako gehienak administrazinoko lanpostuetan eta bitarteko lan-kontratuakaz.
- Beharginen %73 Administrazino Zerbitzuetakoak dira.
- Beharginen %20 Bizkaiko Batzar Nagusietako funtzionarioak dira (hiru lanpostu dira, eta hiru gizonezkok beteten ditue; horreetako bat, izendapen aske bidez).
- Behargin gehienak, batik bat emakumezkoetan, behargin lan-kontratudunak dira: emakumezkoetan, %83; eta gizonezkoetan, barriz, %56.
- Gizonak ordainsaririk handieneko tartean pilatzen dira; hor ez dago emakumerik. Emakumezkoen eta gizonezkoen soldaten batezbestekoa desbardina da; horrek esan gura dau Erakundeak ez dauala bardin inbertiduten bere behargin emakumezkoengan eta behargin gizonezkoengan. Ez dago ekidaderik soldata-tarte baten be.
- Behargin guztiek lanaldi osoko lan-kontratuak daukiez.
- Ez dago beharginik lanaldi murriztua edo eszedentzia eskatu dauanik.
- Lan-arloei eta kategoriei jagokenez, sexuaren araberako osaketea desorekatuta dago, eta bereizketa horizontala eta bertikala da:
  - ✓ Emakumeak administrazino- eta gida-lanpostuetan pilatzen dira. Gizonak, aholkularitzan eta ordenantza-lanpostuetan.
  - ✓ Behargin gehienak A1 eta C1 mailetan sartzen dira: goiko mailea gizonezkoena da, eta behekoa, emakumezkoena (hiru beharginetik bat maila horreetan dago).
  - ✓ Maila guztiak desorekatuta dagoz (C1 mailan baino ez dagoz bi sexuak).
- Behin-behineko lanpostuetan be –lehendakaritzako laguntzaile-lanpostuetan eta batzarkide-taldeetako idazkaritzakoetan–, ohiko bereizketea agertzen da.
- Bizkaiak dauka, une honetan, emakume politikari gitxien (%41), Gipuzkoagaz (%45) eta

Arabagaz (%49) konparauta.

- Batzarkide-taldeen osaketeari jagokonez, oro har, esan leiteke emakumeak ez dirala sartu V. agintaldira arte, eta, kargu eta organo batzuetan, oraindik be desorekak dagozala. Azken agintaldietako eta egungo joerak aztertuta, hona hemen ondorio batzuk:
    - Lehendakari karguari jagokonez, azken agintaldietan hasi da apur bat orekatzen.
    - Lehendakariorde karguari jagokonez, gizonezkoak beti izan dira nagusi, eta bozeroale karguetan, bereziki, ez da ia inoz emakumerik egon.
    - Batzar Nagusien Mahaian, VII. agintaldira arte ez da ia inoz emakumerik egon.
    - Bozeroaleen artean, gizonezkoak beti izan dira nagusi, bai eta bozeroale-ordezkaritzan be.
    - Batzordeei jagokenez, VI. agintalditik aurrera hasi da apur bat orekatzen emakumeen eta gizonen kopurua, bai eta batzordeburu karguetan be, baina beti agertzen dira genero-joerak jorratutako gaien arabera.
    - Azkenik, batzordeetako idazkari karguetan, aztertutako agintaldien erdietan gizonezkoak izan dira nagusi, eta, gaur egun, barriz, emakumeak dira gehienak, %80.

Beste alde batetik, Erakundeko emakumeek eta gizonek bardintasun-politikak zenbateraino ezagutzen eta balioesten dituen aztertuta, hona hemen zenbait emaitza:

- Erakundeko emakumeek eta gizonek badakie zer diran bardintasun-planak eta ekintza positiboak.
- Erakundeko emakumeek eta gizonek EZ daukie eretxi bera hizkerea zaintzeari jagokonez, eta gizonak eszeptikoagoak dira.
- Bai emakumeek bai gizonek pentsetan dabe gizonak (politikariak) ikusgarriagoak dirala emakumeak baino.
- Lana, bizitza personala, bizitza soziala, aisialdia eta abar buztartzeko eragozpenei jagokenez, emakumeek eretxi kritikoagoa daukie.

Laburbilduz, orain arte aitatutako iturri eta datuak aztertuta, ondorioztatu leiteke badagozala alderdi batzuk azpimarratu eta nabarmentzekoak, emakumeen eta gizonen bardintasuna

lortzeko aldaketa-prozesuaren emaitza-edo diran aldetik, eta bidea errazteko alderdiak diran aldetik, hain zuzen be, Bardintasun Planaren abiapuntu eta ardatz izan daitezan.

Ildo horretan, Bardintasun Planari begira, zenbait indargune identifikau dira:

INDARGUNEAK

Emakumeak hasi dira sartzen kargtu politiko nagusietan.

Emakumeak hasi dira sartzen orain arte ia ordezkaritzarik ez eukien batzordeetan (Esate baterako, Ekonomia eta Ogasuna arloetan).

badira batzarkide-taldeak kontuan hartzen dabenak emakumeen eta gizonen parte-hartzea parekidea izan behar dala gai guztietan, estereotipoak betikotu ez daitezan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Bardintasunerako Zuzendaritzari arautegia barrikusteko eskatu jako, hizkera inklusiobaren ikuspegitik.

Persona guztiek dakie zer dan bardintasun-plan bat eta ados dagoz berau egiteko erabagiaz.

Batzarretxeak interes handiko gune turistikoak dira herritarrentzat: Horrek efektu biderkatzailea dauka bardintasun-planaren jardueren eraginari jagokonez.

Enkarterriko Museoa kudeatzen dauan erakundeak txertatuta dauka genero-ikuspegia bere jardueretan (haurrentzako tailerretan eta abar).

Beste alde batetik, zenbait hobekuntza-arlo be identifikau dira, eta horreei erreparetea ezinbestekoa izango da lehentasunak finkatzen hasteko, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Bizkaiko Batzar Nagusien I. Planaren baitako esku-hartzeei jagokenez.

Hobekuntza-arloak balizko hartzaile-taldearen arabera banatu dira, eta barne-antolakuntzeari zuzendutakoak dira, Erakundearen beraren eta haren plantillearen gobernantzearen ikuspegitik.

Jarraian, batzarkide-talde guztiakaz lantzeko lehenetsi diran arloak adieraziko dira, bai eta bizkaitarrengan oro har eragin handiena eukiko daben ekintzak be.

HOBEKUNTZA ARLOAK

BARNE ANTOLAKETEARI JAGOKONEZ

- Datozen urteotan belaunaldi baten erretiroagaitik edo bestelako arrazoiengaitik Bizkaiko Batzar Nagusietan hutsik gelditu daitekezan lanpostuak beteteko deialdi publikoak definitzerakoan, sustatu behar da emakumeak edo gizonak gitxiegi ordezkatuta dagozan lanpostuak orekatuak izatea.
- Aurreko puntuko ekinbideagaz batera, lanpostuei egokitutako sariak aztertu behar dira, soldata-desbardintasunak murrizteko estrategiak finkatzeko.
- Bizkaiko Batzar Nagusietan lan egiten dauan persona orok hizkera inklusiboa erabiltea sustatu behar da, sensibilizazino-jardueren bidez, prestakuntza-saioak antolatuta, estilo-liburu bat eginda, eta abar.
- Beharginen, laguntzaileen eta batzarkideen arteko hartu-emona erraztuko daben gune informalak sortu behar dira.

BATZARKIDE TALDEEI JAGOKENEZ

- Batzordeen lansaioen iraupena mugatu behar da edo/eta neurriak hartu behar dira muga ez gainditzeko (gai-zerrenda laburtu, parte-hartzeen iraupena doitu, eta abar).
- Sistemak ipini behar dira batzordeen lansaioetan urrutiko parte-hartzea errazteko (eta botoa telematikoki emoteko).
- Batzordeen lansaioen ordutegia definiduten daben prozesuak aztertu behar dira, eta batzarkideen beharrei egokitu.
- Espazio bat egokitu behar da batzarkideek aukerea euki dagien noz edo noz euren seme-alabakaz joateko egoitzara.
- Bizitza politikoan eta militantzian, emakumeen parte-hartze parekidea eragozten daben faktore nagusiak identifikau behar dira; esate baterako, ahalduntze-eza, lidergo-eza, lana eta bestelako erantzukizunak buztartu beharra, denporearen kudeaketea, gaztetasuna, ibilbide-eza (*gizonezkoentzat hori ez da eragozpena izaten*), eta abar
- Batzarkide-taldeen arteko komunikazinoan, tratu ona eta errespetuzkoa sustatu behar da (esate baterako, berbazko zein keinu bidezko jarrera desegokiei eta ez-onartuei buruzko adierazpena eginda; Erakundea halako jarrerak onartzen ez dituan gune lez aldarrikatuta; bardintasunezko komunikazino-kode moduko bat zehaztuta…).
- Batzarkideen urtenaldietan, zaindu behar da emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izatea, ze erakunde bisitetan dan begiratu barik.

HERRITARREI JAGOKENEZ

Batzar Nagusiek herritarrengandik hur egon behar dabe, eta, bereziki, emakumeengandik hur, azken horreek ez dabelako ikusgarritasunik euki esparru politiko eta kulturalean. Horretarako, besteak beste, honeen moduko ekintzak sustatu behar dira:

- Osoko batzarretara joateko konbita egitea emakume-taldeei (esate baterako, data esanguratsuetan edo ospakizun-ekitaldiak egiten diranean).
- Bizkaiko errealidadea islatzen daben beste talde eta alkarte batzuei konbita egitea (batzar-saioetan jorratuko diran gaiakaz lotura daukienei, gizarte-intereseko gaiak lantzen dituenei, eta abar), beti be bardintasun-erispideak beteten dituenei. Dekalogo moduko bat egin leiteke konbidauko diran taldeei begira (zenbat persona, ze talde-mueta eta abar).
- Emakumeen parte-hartzea sustatzea Gernikako Arbolaren inguruan egiten diran ekitaldi guztietan (ekitaldien maskulinizazinoa saihestu behar da).
- Erakundean harrera-lana egiten daben personek erakundearen izaeraren isla izatea sustatzea, argazkiak bardintasun-balioak erakutsi dagiazan.
- Bisitaldiak egitea emakumeen lana ikusgarri egiten daben gizarte-intereseko beste ekimen eta espazioetara.
- Guneak zabaltzea herritarrentzat oro har.
- Emakumeei konbita egitea, honakoetan parte hartu dagien: Bizkaiko Batzar Nagusien webgunean, alegazinoak atalean, bai eta Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean be.

Batzarretxean, emakumeen historia ikusgarri egitea (berariazko ekintzak egin, lortu gura dan helburuari begirako jarduerak eukiko dituan eta Bizkaian politikan dabilzan emakumeen laguntzea eukiko dauan epe luzeko programa bat sortzeko).

6. BARDINTASUN PLANA 2017-2020

Diagnostikoa egin ostean, Erakundeko emakumeen eta gizonen bardintasunaren alorreko aldeak zuzendu eta bardintasuna sustatzeko, ildo horretan aurreikusitako ekinbideak eta horreetako bakotxerako definidu diran neurriak azalduko dira segiduan; horrek guztiak formea emoten deutso Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Bizkaiko Batzar Nagusien I. Planari.

Hasieran esandako lez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruari jagokonez, 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenak, 9. artikuluan zehatz esaten dauanez, Euskal herri-aginteek, euren eskumenen esparruan, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta bardintasuna zinezkoak eta benetakoak izateko baldintzak eragitera eta oztopoak desagerrarazotera bideratutako neurriak hartuko ditue.

Hain zuzen be, 9. artikulu hori garatuz, Eusko Legebiltzarrak 4/2005 Legea onartu eban, zezeilaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerakoa. Lege horrek *emakumeen eta gizonen bardintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar daben printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta zenbait neurri be arautzen ditu. Neurrion xedea da emakumeek eta gizonek bizitzaren arlo guztietan aukera eta tratu bardinak izan dagiezan bultzatzea eta bermatzea, eta, bereziki, emakumeen autonomia sustatzea, eta, bereizkeria jasaten daben taldea diranez, gizarte, ekonomia zein politikan daukien posizinoa sendotzea.*

Zalantza barik, 4/2005 Legearen helburua da EAEko aginte publikoek genero-ikuspegia txertatzea euren jardunean. Ildo horretan, legeak dinoanez, “Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar dau legegintzaldi bakotxean. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen bardintasunaren arloan eukiko dituen jarduerak orientetako jarraibideak eta gidalerroak modu koordinau eta orokorrean jasoko dira”.

Horrenbestez, bai 4/2005 Legeak, bai 3/2007 Lege Organikoak, martiaren 27koak, Emakumeen eta Gizonen Bardintasun Eragingarrirakoak, argi zehazten dabe erakunde eta administrazino publikoek bardintasunaren aldeko neurriak hartu behar dituela euren barne-antolakuntzan eta giza baliabideen kudeaketan.

Eta zer da Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Plana?

Erakunde baten baitan, bertan lan egiten daben emakumeen eta gizonen bardintasun ERREALA lortzeko TRESNA ESTRATEGIKOA da; izan be, neurriak bideratzen ditu emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izan daiten erakundearen esparru eta maila guztietan, eta, horretarako, personak erakundean sartu, iraun eta garatu daitezan sustatzen da.

Bardintasun Planaren garapenak genero-ikuspegia txertatzea dakar, bai eta kudeaketa-estrategia jakin baten plangintzea be (persona-, programa- eta zerbitzu-politikak).

Bardintasun planak EZAUGARRI orokor honeek ditu:

- Lehendakaritzaren konpromiso eta lidergo aktiboa, eta denporan iraunkorra.
- Beharginen ordezkaritzearen parte-hartze aktiboa, plana egiterakoan eta haren jarraipenean.
- Martxan ipiniko diran ekinbideen barne-komunikazinoa.
- Kanpo-komunikazinoa, publikoari oro har.
- Gardentasuna, planaren ezarpenean.
- Etenbako hobekuntzea.
- Indarrean dagoan legediagaz bat etortea.

Gehiago zehazteko, Bardintasun Planak beste ezaugarri honeek be euki behar ditu:

- Egingarria izan behar da, bai erakundearen jardunaren eta zerbitzuen izaerari egokitutakoa izango dan aldetik, bai eta erakundeak, aurreikusitako aldirako, eskura eukiko dituan giza eta ekonomia-baliabideei egokitutakoa izango dan aldetik.
- Bateragarria izan behar da; hau da, jardunbide batek ez dau beste bat eragotzi behar edo ez dau haren irismena murriztu behar: alkarren artean koordinau, eta alkarri eutsiko deutsee.
- Ikuspegi integrala euki behar dau, erakundearen estrategia globalagaz bat eginda.
- Garrantzitsua da plana esanguratsua izatea: bardintasun-plan batek jasoko dituan neurriek erakundearen behar errealei egokitutakoak izan behar dabe, eta alderdi nagusi

guztiei eragin behar deutse batera, horreetako bakar baten kontzentrau barik, eta horreetako bat bera be ahaztu barik.

- Ekidadea: planak bermatu behar dau ez dala kolektibo bakar bat be kanpoan geldituko, eta ekinbideak modu ekitatiboan banatuko dirala, desbardintasunetan arretea ipinita (horren ondorioz, ekinbide desbardinak egon daitekez, kolektiboaren/egoerearen arabera).
- Errentagarritasuna: lehentasuna eukiko dabe kostua/onura (eraginkortasuna) erlazinoari jagokonez emaitzarik onena daukien ekinbideek

Bardintasun Plana garatzeko, lau ildo estrategiko honeek definidu dira:

1. **Gobernantzea. Barne-kudeaketea**
2. **Gizarte-eragina**
3. **Komunikazinoa**
4. **Emakumeen ikusgarritasuna euskal erakundeetan**

Ildo estrategiko bakotxak, beste alde batetik, hainbat ekinbide hartzen ditu. Guztira, 42 ekinbide dira, irismen desbardinekoak: batzuk operatiboagoak eta gauzatzeko errazagoak dira, eta beste batzuek, barriz, estrategikoagoak izanda, lan-prozesu luzeagoa beharko dabe, eta gero eta zehaztasun handiagoz jasoko dira urteroko plan operatiboetan.

Norabide horretan, urtero aukeratuko dira Erakundeak garatu beharreko ekinbide interesgarrienak, eta horreek gorpuztuko dabe urteko plan operatiboa, etengabe ebaluauko dana.

Lau ildo estrategikoetako bakotxean, diagnostikoaren emaitzen arabera aurreikusitako ekinbideak aitatzen dira, bai eta lortu gura diran helburuak be. Beste alde batetik, helburuakaz batera, horreek lortzeko neurri edo ekintzak azaltzen dira, bai eta horreei jagokezan jarraipen-adierazleak be. Atal honetan aurkeztuko diran lan-ildoak zehaztuta, Bardintasun Planak hartuko dituan lau urteetarako egutegia azalduko da, eta horrek egingarritasun eta errentagarritasun-erispideei erantzungo deutse.

Jarraian, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Bizkaiko Batzar Nagusien I. Plana 2017/2020 ekimena osatzen daben helburuak, ekinbideak, neurriak eta adierazleak aurkeztuko dira.

ARDATZA		EKINBIDEAK	JARDUERAK
01	GOBERNANTZEA - BARNE-KUDEAKETEA	Genero-ikuspegia txertatzea erakundearen hartu-emoneko alderdietan edota alderdi personaletan, erakundea parte- hartzaileagoa eta ekitatiboagoa izan daiten arlo guztietan.	**17**
02	GIZARTE-ERAGINA	Emakumeen eta gizonen bardintasunaren balioa lantzea, erakundearen kulturaren eta jardunaren parte izan daiten, eta justizia eta bardintasun sozialaren alde eragina euki dagian. Batzar Nagusiak herritarrengana hurreratzea, emakumeen eta gizonen bardintasunaren ikuspegitik.	**9**
03	KOMUNIKAZINOA	Genero-bardintasunaren ikuspegia sustatzea barne- eta kanpo-komunikazinoan zein hedabideakazkoan, eta hizkerearen eta irudien erabilera inklusiboa aintzat hartzea.	**9**
04	EMAKUMEEN IKUSGARRITASUNA EUSKAL ERAKUNDEETAN	Emakumeek euskal erakundeei egin deutseen ekarpena ezagutarazotea, memoria historikoa berreskurauta. Ordezkaritza politikoko eginkizunetan emakumeek daukien parte-hartzea ikusgarri egitea.	**7**
TOTAL			42

01	GOBERNANTZEA - BARNE-KUDEAKETEA
EKINBIDEA	Genero-ikuspegia txertatzea erakundearen hartu-emoneko alderdietan edota alderdi personaletan, erakundea parte-hartzaileagoa eta ekitatiboagoa izan daiten arlo guztietan.
HELBURUAK	➲ Bardintasun Plana kudeatu eta garatzea, horretarako berariazko egiturak eta baliabideak sortuz. ➲ Bardintasunagaz erlazionautako dokumentuak eta informazinoa trukatzeko guneak sortu eta mantentzea. ➲ Bardintasunerako prestakuntzea emotea behargin finko zein behin-behinekoei eta batzarkideei. ➲ Erakundean lan egiten daben personen bizitza-arloak buztartzeko bidea hobetzea, denporea kudeatzeko baliabideak eta estrategiak martxan ipiniz. ➲ Emakumeen eta gizonen presentzia orekatzea antolamentu-egituraren arlo, kategoria eta lanpostuetan, eta genero-arrakalea minimizetea. ➲ Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea gobernu-organoetan eta gainerako egituretan (batzordeak, bozeroaleak...). ➲ Lan Arriskuen Prebentzinorako (LAP) jardunbideak genero-ikuspegitik barrikustea, berariazko jardunbideak idazteko beharra aintzat hartuz. ➲ Kontratuak egiterakoan, erakunde hornitzaileen bardintasunagazko konpromisoa kontuan hartzea. ➲ Sexuaren araberako datuak eukitea.
NEURRIAK	1. Bardintasun Plana (BP) ezagutzera emotea, Erakundeari berari eta Bizkaiko herritarrei. 2. Bardintasunerako Taldea jardunean eukitea, plana gauzatzeko eta haren jarraipena egiteko. 3. Urtero aurrekontu bat bideratzea Bardintasun Plana gauzatzeko.

	4. Bardintasun Plana garatzeko ekintza-plana zehaztea urtero, eta haren jarraipena eta ebaluazinoa egitea. 5. Liburutegi birtuala sortzea (bideoak, azterlanak, eskuliburuak, araudiak eta abar). 6. Emakumeen eta gizonen bardintasunari buruzko jarduera bat egitea, hiru hilean behin. Bardintasunaz berbetan. 7. Beharginen etenbako prestakuntzarako plana diseinetea, genero-ikuspegia edo bardintasunerako berariazko ikuspegia daukien ekintzak barne hartuta (herritarrenganako arretea, hizkerea eta komunikazinoa, denporearen kudeaketea…). 8. Erakundearen eta parlamentu-jardueraren ordutegiak zaintzea, persona-, familia- eta lan-erantzukizunak buztartzeko beharra errespetetako. 9. Erantzukizunak buztartzeko baliabideen gidaliburua eukitea. 10. Batzordeetan eta gobernu-organoetan bardintasuna bermatzeko formulak aztertzea. 11. Jazarpen sexuala eta sexistea izan daitekezan egoerak detektetako, saihesteko eta, gertatu ezkero, bertan esku hartzeko protokoloa prestatzea. 12. Datozen urteei begirako belaunaldi-erreleborako plan bat aztertzea, lanpostuak beteten dirala eta genero-desorekak minimizetan dirala bermatzeko. 13. Genero-arrakalea (sexu-bereizketa bertikal eta horizontala, soldata-desbardintasuna eta abar) aldiro neurtzea ahalbidetuko daben adierazleen multzoa zehaztea, eta arrakala hori minimizetako neurriak definidutea. 14. Kontratetako baldintza teknikoen agirietan, gizarte- eta bardintasun-klausulei eustea. 15. Sexu-aldagaia aintzat hartzea Batzar Nagusien jarduera islatzen daben dokumentuetan (memoriak, txostenak, erregistroak, bisitei buruzko albisteak, eta abar). 16. Irisgarritasun-azterketea genero-ikuspegitik barrikustea. 17. Aurrekontu orokorrak genero-ikuspegitik lantzea.
EMAITZA-ADIERAZLEAK	✓ Emakumeek eta gizonek zenbateraino parte hartu daben prestakuntza-jardueretan, koordinazino-bileretan, interakzino-guneetan, eta abar.

	✓ Bardintasun Plana ezagutzera emoteko zenbat ekintza egin diran eta zein muetatakoak. ✓ Bardintasunagaz erlazionautako informazinoa eta dokumentuak trukatzeko gunerik eta baliabiderik ba ete dagoan. ✓ Aurreikusitako ekintzetatik zenbat gauzatu diran (%) eta zein mailatan (%).
PROZESU-ADIERAZLEAK	✓ Plana martxan ipini dala jakinarazoteko ze bide baliatu dan (aurkezpenak, prensaurrekoak, prensa-oharrak…) eta zein hartzaileri zuzendu. ✓ Koordinazino-mekanismorik ba ete dagoan. ✓ Plana garatzeko berariazko aurrekonturik ba ete dagoan, eta aurrekontu osoaren zein %dan. ✓ Bardintasunagaz erlazionautako gaiei buruzko ze jarduera-mueta egiten diran. ✓ Emakumeen eta gizonen asebetetze-mailea, parte hartu daben jarduerakazkoa (prestakuntzea, bilerak, interakzino-guneak, eta abar). ✓ Erakundearen hainbat eremutako jardunbideetan (LAP, irisgarritasuna, lanpostua eskuratzea, prestakuntzea, aurrekontuak prestatzea, eta abar) genero-ikuspegia txertatuta ete dagoan. ✓ Erakundearen eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko orekea sustatzeko eta desbardintasun-arrakalea murrizteko estrategiarik ba ete dagoan. ✓ Emakumeen presentzia sustatzeko ekintza positiboak egin ete diran, eta ze muetatakoak.
ERAGIN-ADIERAZLEAK	✓ Emakumeek eta gizonek parte hartzen dabe jardueretan, eta euren asebetetze-mailea areagotu egin da. ✓ Kontratuetan, sendotu egin dira bardintasun-klausulak. ✓ Memoriak, erregistroak eta abar hobetu egin dira, sexuen araberako datuak sartuta. ✓ Bardintasunagaz erlazionautako ekintzetako partaidetzea (emakumeena eta gizonena) areagotu egin da, baita parte-hartzaileen asebetetze-mailea be. ✓ Erakundeko personek zailtasun gitxiago daukiez euren erantzukizunak buztartzeko. ✓ Genero-arrakalea txikitu egin da. ✓ Emakumeen presentzia areagotu egin da gitxiegi ordezkatuta egozan eremu, postu eta abarretan.

02	GIZARTE-ERAGINA
EKINBIDEAK	Emakumeen eta gizonen bardintasunaren balioa lantzea, erakundearen kulturearen eta jardunaren parte izan daiten, eta gizarte-justiziaren eta -bardintasunaren alde eragina euki dagian. Batzar Nagusiak herritarrengana hurreratzea, emakumeen eta gizonen bardintasunaren ikuspegitik.
HELBURUAK	➲ Erakundearen bardintasun-politikea definidu, partekatu eta ezagutzera emotea. ➲ Batzar Nagusien jardunean (osoko batzarrak, batzordeak eta abar) herritarrek, eta bereziki emakumeek, parte hartu dagien sustatzea, eta jarduera horrek gizartean daukan inpaktua indartzea. ➲ Erakundeak bardintasunagaz daukan konpromisoa ikusgarri egitea eta bardintasunaren aldeko jarduerak sustatzea.
NEURRIAK	1. Batzar Nagusiek bardintasunaren balioakaz daukien jarrerea azalarazoteko ekintzak egitea (esate baterako: bardintasunaren alde jarduteko printzipioei buruzko adierazpen bat idatzi, egoitzetan informazino-kartelak ipini, eta abar). 2. Erakundean harrera-lana egiten daben personek erakundearen izaerearen isla izatea sustatzea, argazkiak bardintasun-balioak erakutsi dagiazan. 3. Osoko bilkurak Bizkaiko errealidadea islatzen daben beste erakundeei be zabaltzeko bideragarritasuna aztertzea. 4. Emakume-alkarteei eta, oro har, bardintasunaren alde lan egiten dabenei ezagutzera emotea Batzar Nagusiek daukiezan baliabide irekiak, baliabide horreen erabilerea optimizetako. 5. Batzar Nagusiek herritarrei begira antolatzen dituen jardueren genero-inpaktua ebaluetea. 6. Jarduerak antolatzea beste zenbait erakundegaz batera, baliabideak-eta aprobetxetako (lankidetza-akordioak egin erakunde honeekaz: EUDEL, Basqueskola, BFA...).

	7. Bardintasunagaz lotutako gaiei buruzko kanpaina bat egitea urtero, NBE Emakumeak, EIGE, EMAKUNDE, eta abarren erispideei jarraituz. 8. Genero-indarkeria gaitzesteko sinboloa dan puntu morea sartzea Erakundearen inprimakietan, fitxetan eta sinadura digitaletan. 9. Indarkeria gaitzesteko ikurrak ikusgarri ipintea Erakundearen eraikinetan, Bizkaian eta Euskadin oro har emakumeakazko indarkeria-kasuak gertatzen diranean.
EMAITZA-ADIERAZLEAK	✓ Aurreikusitako ekintzetatik zenbat gauzatu diran (%) eta zein mailatan (%) ✓ Emakumeek eta gizonek zenbateraino parte hartu daben egindako jardueretan, kanpainetan eta abarretan. ✓ Bardintasun-balioaren aldeko zenbat ekinbide egin diran eta ze muetatakoak izan diran (adierazpenak, kanpainak, beste erakundeakazko lankidetza-jarduerak, eta abar). ✓ Genero-indarkeria gaitzesteko ikurrak erantsi ete diran Erakundearen dokumentuetan. ✓ Bizkaian genero-indarkeriari lotutako kasuren bat gertatzen dan guztietan, berau gaitzesteko adierazpena egiten ete dan.
PROZESU-ADIERAZLEAK	✓ Beste erakundeakaz batera jarduteko akordiorik ba ete dagoan. ✓ Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko ikurrak erantsi ete diran. ✓ Bardintasunagaz erlazionautako gaiei buruzko jardueren urteko programea egin ete dan, bereziki emakume-taldeakaz egiteko jarduerena. ✓ Emakumeen eta gizonen asebetetze-mailea, parte hartu daben jarduerei jagokenez. ✓ Erakundeak burutu dituan jardueren eragina ebalueetan ete dan.
ERAGIN-ADIERAZLEAK	✓ Bardintasunagaz erlazionauta herritarrei zuzendutako jarduerak areagotu ete diran, baita beste erakundeakaz lankidetzan egindakoak be. ✓ Emakumeen kontrako indarkeriagazko gaitzespenaren zabalkundea areagotu ete dan. ✓ Jardueretan parte hartu daben emakumeen eta gizonen kopurua areagotu ete dan, baita horreen asebetetze-mailea be.

03	KOMUNIKAZINOA
EKINBIDEA	Genero-bardintasunaren ikuspegia sustatzea barne- eta kanpo-komunikazinoan zein hedabideakazkoan, eta hizkerearen eta irudien erabilera inklusiboa aintzat hartzea.
HELBURUAK	➲ Hizkera eta irudien erabilera bardinzaleago baten aldeko jarraibideak eukitea. ➲ Komunikazino-baliabideak hobetzea, hizkera bardinzaleagoa izan daiten, baita ahozkoan be. ➲ Erakundeak bardintasunagaz daukan konpromisoa komuniketea eta ezagutzera emotea. ➲ Komunikazino arloan tratu ona eta errespetuzkoa sustatzea eta zabaltzea. ➲ Batzar Nagusiei buruzko albisteak, prensa-oharrak eta komunikazinoak genero-ikuspegiaren arabera idatzi eta argitaratu daitezan zaintzea.
NEURRIAK	1. Dokumentazinoa barrikustea (liburuxkak, gidak, administrazino-dokumentuak, webgunea, intraneta...), komunikazino inklusiboaren ikuspegitik, eta dokumentuetako hizkerea eta irudien erabilerea egokitzea. 2. Nomenklatura eta kartelak egokitzea, hizkera inklusiboaren erispideen arabera. 3. Erakundeak zabaltzen dauan informazinoa bardintasun-balioakaz bat ete datorren aztertzea; eta, beharrezkoa balitz, egokitzea. 4. Neurri eraginkorrak bilatzea, Batzar Nagusien webgunearen edukiak bardintasunez bete daitezan. 5. Bardintasunezko komunikazinorako Bizkaiko Batzar Nagusien oinarrizko eskuliburua idatzi eta ezagutzera emotea.

	6. Bardintasun Planaren urteko ebaluazinoaren emaitzak ezagutzera emotea Erakundearen baitan, eta gizartean oro har. 7. Adierazpen bat idaztea, Batzar Nagusien egoitzak emakumeen eta gizonen arteko errespetuzko jokamoldeen eta tratu onaren aldeko guneak dirala jakitera emoteko. 8. Batzar Nagusiei buruzko informazinoa emoten daben hedabideetako profesionalakaz topaguneak sustatzea, bardintasuna komunikazinoan zelan txertatu leitekean aztertzeko. 9. Erritu, zeremonia, espazio eta abarretan izaera sexistea daukien zantzuak aztertzea, maskulinidadeagaz lotutakoak batik bat, eta aurkitutakoak desagerrarazotea.
EMAITZA-ADIERAZLEAK	✓ Aurreikusitako ekintzetatik zenbat gauzatu diran (%) eta zein mailatan (%). ✓ Emakumeek eta gizonek ze parte-hartze euki daben jardueretan.
PROZESU-ADIERAZLEAK	✓ Hizkerea eta irudiak modu inklusiboan erabilteko eskuliburu edo jarraibiderik ba ete dagoan. ✓ Emakumeen eta gizonen asebetetze-mailea, parte hartu daben jarduerei jagokenez. ✓ Erakundeko kideen artean zenbateraino txertatu diran komunikazino inklusiborako jarraibideak.
ERAGIN-ADIERAZLEAK	✓ Komunikazino-estilo inklusiboa sendotuta dago. ✓ Dokumentuak, nomenklaturak, albistea eta abar hobetu dira, bardintasunezko komunikazinorako erispideak sartu dira-ta. ✓ Genero-ikuspegia areagotu da hedabideek Batzar Nagusiei buruz emoten daben informazinoan. ✓ Genero-indarkeriaren aurreko herritarren jarrera eta portaera ez-tolerantea areagotu da. ✓ Indarkeriazko portaeren aurreko herritarren sensibilizazinoa eta zero tolerantzia areagotu dira. ✓ Erakunde bardinzaleago baterako urratsak ugaltzen dabilz maila guztietan.

04	EMAKUMEEN IKUSGARRITASUNA EUSKAL ERAKUNDEETAN
EKINBIDEAK	Emakumeek euskal erakundeei egin deutseen ekarpena ezagutarazotea, memoria historikoa berreskurauta. Ordezkaritza politikoko eginkizunetan emakumeek daukien parte-hartzea ikusgarri egitea.
HELBURUAK	➲ Emakumeek Bizkaiari ze ekarpen egiten deutsien azalarazoten laguntzea. ➲ Bizkaiko lurralde historikoa eraikitzeko orduan, makumeek ze ekarpen egin daben azalarazotea.
NEURRIAK	1. Emakumeek euskal erakundeetan egindako lanaren inguruko ikerkuntzak sustatzea (unibersidadeakaz eta ikerlan-zentroakaz alkarlanean). 2. Emakumeen historiagaz lotutako mezuak idatzita daukiezan materialak eta euskarriak sortzea, ikusgarritasuna lortzeko eta jendartean zabaltzeko (egutegiak, globoak, kamisetak, koadernoak, oihalezko boltsak, liburu-markatzaileak...). 3. Emakumeen parte-hartzea bultzatzea Gernikako Arbolari eta haren esangura sinbolikoari buruzko ekitaldietan. 4. Gernikako Batzarretxean emakumeen historia ikusarazoten dala bermatzea (esate baterako, bisitariek emakumeen historiari eta euren lanari buruzko mezuak entzungo dituela bermatu; gaia ezagutarazoteko ekitaldiak, aste tematikoak edo berariazko jarduera irekiak antolatu). 5. Emakumeen eskubideei lotutako data eta ospakizun esanguratsuetan, emakume-alkarteak konbidetea osoko batzarretara. 6. Umeentzako “batzar txikiak” egin daitezan sustatzea; bertan, neskak izango dira protagonistak, eta umeei informazinoa emongo jake Batzar Nagusien eta Bizkaiko historian emakumeek egin daben ekarpenari buruz. 7. Gernikan urtero egiten dan emakume hautetsien batzarra egiten jarraitzea.

EMAITZA-ADIERAZLEAK	✓ Aurreikusitako jardueretatik zenbat egin diran (%) . ✓ Zenbat emakumek eta gizonek parte hartu daben jardueretan. ✓ Ze jarduera-mueta egin diran emakumeek Bizkaiari egin deutsien ekarpena ezagutarazoteko.
PROZESU-ADIERAZLEAK	✓ Emakumeen historia ezagutarazoteko ekimenik ba ete dagoan (berariazko materialak, oroitzapenezko ekitaldiak data esanguratsuetan, emakumeen batzarra, batzar txikiak...). ✓ Emakumeen eta gizonen asebetetze-mailea, parte hartu daben jardueretan. ✓ Emakumezko konbidauen eta parte-hartzaileen ehunekoa; Bizkaiko emakumeen ordezkaritza-mailea.
ERAGIN-ADIERAZLEAK	✓ Emakumeek Bizkaiari egin deutsien ekarpenaren inguruko ezagutzea handitu ete dan. ✓ Emakumeek egin daben ekarpenaren inguruko ezagutzea jendartean zabaldu ete dan. ✓ Emakume hautetsien urteroko batzarra eta antzeko beste ekimen batzuk sendotu ete diran. ✓ Batzarretxean emakumeen historiaren inguruan egiten diran berbaldiak hobetu ete diran. ✓ Esparru publikoan emakumeen parte-hartzea handiagoa ete dan.

EKINTZEN EGUTEGIA

ARDATZA	EKINBIDEAK	URTEA			
		17	18	19	20
01	**1.** Bardintasun Plana (BP) ezagutzera emotea, Erakundeari berari eta Bizkaiko herritarrei.	■	■	■	■
01	**2.** Bardintasunerako Taldea jardunean eukitea, plana gauzatzeko eta haren jarraipena egiteko.	■	■	■	■
01	**3.** Urtero aurrekontu bat bideratzea, Bardintasun Plana gauzatzeko.	■	■	■	■
01	**4.** Bardintasun Plana garatzeko ekintza-plana zehaztea urtero, eta haren jarraipena eta ebaluazinoa egitea.	■	■	■	■
01	**5.** Liburutegi birtuala sortzea (bideoak, azterlanak, eskuliburuak, araudiak eta abar).			■	
01	**6.** Emakumeen eta gizonen bardintasunari buruzko jarduera bat egitea, hiru hilean behin. Bardintasunaz berbetan.	■	■	■	■
01	**7.** Beharginen etenbako prestakuntzarako plana diseinetea, genero-ikuspegia edo bardintasunerako berariazko ikuspegia daukien ekintzak hartzen dituana (herritarrenganako arretea, hizkerea eta komunikazinoa, denporearen kudeaketea…).		■		
01	**8.** Erakundearen eta parlamentu-jardueraren ordutegiak zaintzea, persona-, familia- eta lan-erantzukizunak buztartzeko beharra errespetetako.	■	■	■	■
01	**9.** Erantzukizunak buztartzeko baliabideen gidaliburua eukitea.		■		
01	**10.** Batzordeetan eta gobernu-organoetan bardintasuna bermatzeko formulak aztertzea.		■	■	
01	**11.** Jazarpen sexuala eta sexistea izan daitekezan egoerak detektetako, saihesteko eta, gertatu ezkero, bertan esku hartzeko protokoloa prestatzea.		■		
01	**12.** Datozen urteei begirako belaunaldi-erreleborako plan bat aztertzea, lanpostuak beteten dirala eta genero-desorekak minimizetan dirala bermatzeko.			■	■

ARDATZA	EKINBIDEAK	URTEA			
		17	18	19	20
01	**13.** Genero-arrakalea (sexu-bereizketa bertikal eta horizontala, soldata-desbardintasuna, eta abar) aldiro neurtzea ahalbidetuko daben adierazleen multzoa zehaztea, eta arrakalea minimizetako neurriak definidutea.				
01	**14.** Kontratetako baldintza teknikoen agirietan, gizarte- eta bardintasun-klausulei eustea.				
01	**15.** Sexu-aldagaia aintzat hartzea Batzar Nagusien jarduerea islatzen daben dokumentuetan (memoriak, txostenak, erregistroak, bisitei buruzko albisteak eta abar).				
01	**16.** Irisgarritasun-azterketea genero-ikuspegitik barrikustea.				
01	**17.** Aurrekontu orokorrak genero-ikuspegitik lantzea.				
02	**1.** Batzar Nagusiek bardintasunaren balioen inguruan daukien jarrerea adieraziko daben ekintzak burutzea (esate baterako: bardintasunaren alde jarduteko printzipioei buruzko adierazpen bat idatzi, egoitzetan informazino-kartelak ipini, eta abar).				
02	**2.** Erakundean harrera-lana egiten daben personek erakundearen izaeraren isla izan daitezan sustatu, argazkiak bardintasun-balioak erakus ditzan.				
02	**3.** Osoko bilkurak Bizkaiko errealidadea islatzen daben beste erakundeei be zabaltzeko bideragarritasuna aztertzea.				
02	**4.** Emakume-alkarteei eta, oro har, bardintasunaren alde lan egiten dabenei ezagutzera emotea Batzar Nagusiek daukiezan baliabide irekiak, baliabide horreen erabilerea optimizetako.				
02	**5.** Batzar Nagusiek herritarrei begira antolatzen dituen jardueren genero-inpaktua ebaluetea.				
02	**6.** Jarduerak antolatzea beste zenbait erakundegaz batera, baliabideak-eta aprobetxetako *(lankidetza-akordioak egin erakunde honeekaz: EUDEL, Basqueskola, BFA...).*				

ARDATZA	EKINBIDEAK	URTEA			
		17	18	19	20
02	**7.** Bardintasunagaz lotutako gaiei buruzko kanpaina bat egitea urtero, NBE Emakumeak, EIGE, EMAKUNDE, eta abarren erispideei jarraituz.				
02	**8.** Genero-indarkeria gaitzesteko sinboloa dan puntu morea sartzea Erakundearen inprimakietan, fitxetan eta sinadura digitaletan.				
02	**9.** Indarkeria gaitzesteko ikurrak ikusgarri ipintea Erakundearen eraikinetan, Bizkaian eta Euskadin oro har emakumeakazko indarkeria-kasuak gertatzen diranean.				
03	**1.** Dokumentazinoa barrikustea (liburuxkak, gidak, administrazino-dokumentuak, webgunea, intraneta...), komunikazino inklusiboaren ikuspegitik, eta dokumentuetako hizkerea eta irudien erabilerea egokitu.				
03	**2.** Nomenklatura eta kartelak egokitzea, hizkera inklusiboaren erispideen arabera.				
03	**3.** Erakundeak zabaltzen dauan informazinoa bardintasun-balioakaz bat ete datorren barrikusi eta aztertzea, eta, beharrezkoa balitz, egokitzea.				
03	**4.** Neurri eraginkorrak bilatzea, Batzar Nagusien webgunearen edukiak bardintasunez bete daitezan.				
03	**5.** Bardintasunezko komunikazinorako Bizkaiko Batzar Nagusien oinarrizko eskuliburua idatzi eta ezagutzera emotea.				
03	**6.** Bardintasun Planaren urteko ebaluazinoaren emaitzak ezagutzera emotea Erakundearen baitan, eta gizartean oro har.				
03	**7.** Adierazpen bat idaztea, Batzar Nagusien egoitzak emakumeen eta gizonen arteko errespetuzko jokamoldeen eta tratu onaren aldeko guneak dirala jakitera emoteko.				
03	**8.** Batzar Nagusiei buruzko informazinoa emoten daben hedabideetako profesionalakaz topaguneak sustatzea, bardintasuna komunikazinoan zelan txertatu leitekean aztertzeko.				
03	**9.** Erritu, zeremonia, espazio eta abarretan izaera sexistea daukien zantzuak aztertzea, maskulinidadeagaz lotutakoak batik bat, eta aurkitutakoak desagerrarazotea.				

ARDATZA	EKINBIDEAK	URTEA			
		17	18	19	20
04	**1.** Emakumeek euskal erakundeetan egindako lanaren inguruko ikerkuntzak sustatzea (unibersidadeakaz eta ikerlan-zentroakaz alkarlanean).				
04	**2.** Emakumeen historiagaz lotutako mezuak idatzita daukiezan materialak eta euskarriak sortzea, ikusgarritasuna lortzeko eta jendartean zabaltzeko (egutegiak, globoak, kamisetak, koadernoak, oihalezko boltsak, liburu-markatzaileak...).				
04	**3.** Emakumeen parte-hartzea bultzatzea Gernikako Arbolari eta haren esangura sinbolikoari buruzko ekitaldietan.				
04	**4.** Gernikako Batzarretxean emakumeen historia ikusarazoten dala bermatzea (esate baterako, bisitariek emakumeen historiari eta euren lanari buruzko mezuak entzungo dituela bermatu; gaia ezagutarazoteko ekitaldiak, aste tematikoak, edo berariazko jarduera irekiak antolatu).				
04	**5.** Emakumeen eskubideei lotutako data eta ospakizun esanguratsuetan, emakume-alkarteak konbidetea osoko batzarretara.				
04	**6.** Umeentzako “batzar txikiak” egin daitezan sustatzea; bertan, neskak izango dira protagonistak, eta umeei informazinoa emongo jake Batzar Nagusien eta Bizkaiko historian emakumeek egin daben ekarpenari buruz.				
04	**7.** Gernikan urtero egiten dan emakume hautetsien batzarra egiten jarraitzea.				

7. LANAREN KUDEAKETEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZINOA

Jarraian azalduko doguzan hiru alderdiak nahitaezkoak dira Bardintasun Plana egikaritu eta malgutasunez garatu daiten, bai eta erakundeak berak denporan zehar esperimentauko dituan egoera barriei erantzun egokia emon deien be.

Ildo horretan, gomendagarria da zenbait egitura eta baliabide beren-beregi sortzea Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Bizkaiko Batzar Nagusien I. Plana koordinau eta egikaritzeko.

A. LANTALDE ERAGILEA

Lantalde edo Egitura Eragilearen helburua da Bardintasun Planaren baitan urtez urte zehaztuko diran helburuak eta ekintzak bultzatzea eta koordinetea, eta horreen jarraipena eta ebaluazinoa egitea. Egitura bera iraunkorra izango da, baina haren osaketea, barriz, denporaldi baterakoa, eta, modu horretan, kideak txandakatzeko aukerea egongo da.

Lantaldea aldiro bilduko da plangintzako ekinbideen jarraipena egiteko eta aurreikusitako helburuak bete diran ebaluetako.

Urteko plan operatiboak Bizkaiko Batzar Nagusien gainerako estrategia- eta kudeaketa-planen araberakoak izango dira, eta horreen bidez lortu gura diran helburuak eta lortutako emaitzak azalduko dira urteroko memorietan eta bestelako informazino-txostenetan.

B. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Plan hau egikaritzeko, baliabide ekonomikoak behar dira.

Horrenbestez, diru-partida bat aurreikusi beharko da erakundearen urteko aurrekontuan.

C. LAN PROGRAMEA, ETA HAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZINOA EGITEKO TRESNAK

Planaren baitan, nabarmentzekoa da lan-dokumentuak egitea eta beren-beregi pentsautako tresnak sortzea aurreikusten dala, ekintzak inplementetako; era berean, horreen jarraipena eta ebaluazinoa egiteko tresnak be aurreikusten dira.

Ondorioz, lan-dokumentu honeek egingo dira:

Urteko Plan Operatiboa. Urtero, lehenengo hiruhilekoaren barruan, bardintasuna kudeatzeko urteko plana egingo da, eta, horren baitan, jakingarri honeek azalduko dira:

- Urteko helburuak eta ekintzak jasoko dituen plangintza
- Jarraipen-mekanismoak
- Ebaluazino-adierazleak
- Aurrekontua

Urteko Ebaluazino Txostena. Bere helburua izango da planaren gauzatze-mailea eta haren eragina azaltzea.